

Asisko gutuna

2016ko Urtarrila.

3. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

87. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Urte berriari ekin diogu. Maila pertsonalean ere berria gertatuko ote? Garai politico berriari ekin diogu. Gizarte arloan ere berria gertatuko ote? Elizan ere garai berriari ekin diogu, Errukiaren Urte Santua. Jainkoaren errukia ezagutzera eta bera bezala errukitsu izatera eramango gaituen urtea ote? Hala bedi!

Gogoetarako gaia

Ahalmen/boterea eta zerbitzua

Gure giza izaerak balio eta modu guztiz ezberdinetako ahalmen/botere-mailak desiratzera garamatza. Ahalmen/boterea eduki nahi dugu gurasook seme-alabekiko, seme-alabek gurasoekiko... lagun batzuek bestekiko, aberatsak pobreekiko... eta gehienetan dugun pretentsioa da, nirea hobea dela bestearena baino eta inposatu egin behar dela inola ahalean.

Badirudi, halaber, balio pertsonal handiagoa dugula, ahalmen/gaitasun handiagoa badugu: diruz, buruz, nolanhiko sedukzio pertsonaleko karismez; eta horrek guztiak ondo sentiarazten gaitu, “inportanteak” egiten, azken batean hori baita gizarte honetan axola duena.

Are maila espiritualean ere, inportanteagoa dirudi otoitz gehiago (edo hobeto) egiten duenak, zeren eta gertuago dagoela pentsatzen baita Jainkoagandik; bai eta besteei emanagoa bizi denak ere, baina agian norbere gogobetetzea bilatuz edo bestea baino gehiago sentituz.

Modu asko daude ahalmen/boterea edukitzeko, edo eduki nahi izateko, eta hori ez da txarra.

Arazoa da zer egiten dugun ahalmen/botere lortuarekin, maileguz edo opariz hartuarekin...

Ditudan gaitasun guztiak erabil ditzaket besteak menpean hartzeko xedez, besteari “goitik behera” begiratzeko, edo bestela jar ditzaket besteentz zerbitzurako.

Izan ditzaket neure esku denbora, dirua, era askotako buru-ezagutzak, entzuteko gaitasuna, onarpen-gaitasuna, eta hori dena erabili neure mesedetarako edo gizarte maila goragokoan egoteko, edo bestela jar ditzaket denak besteen zerbitzurako.

Agian izan dezaket harreman berezia Jainkoarekin eta horrek eraman nazake spiritu-urguilura, edo bestela eman niezaieke neure burua besteei apalki, Jainkoaren eskutik haiei bidelaguntza emateko, horrela mundu elkartuago eta zuzenago bat eraikiz.

Kanporantz begiratzea eta dudan guztia mundu solidarioago bat egiteko jartzea izango litzateke ahalmen/boterea zerbitzu bihurtzea.

Ebanjelioko pasartea: Lk 22,24-29

Ikasleak eztabaidan hasi ziren beren artean, beraietan zein ote zen handiena. Jesusek esan zien: «Herrietako erregeek menpean hartzen dituzte herriak, eta agintedunek “Ongile” izena nahi izaten dute berentzat. Zuek ez jokatu horrela... Zein ote da handiago, mahaian dagoena ala zerbitzatzen ari dena?... Bada, ni zerbitzari bezala nago zuen artean. Zuek sendo iraun duzue nirekin nire probaldietan. Eta nik erregetza ematen dizuet, Aitak neuri eman zidan bezala».

Frantziskotar espiritualtasuna

«Bestalde, anaiek ez bezate izan botererik eta aginterik, eta are gutxiago beren artean. Izan ere, honela dio Jaunak Ebanjelioan: Herrietako buruzagiek menpean hartzen dituzte herriok, eta handi-mandiek beren agintea ezartzen diete. Ez du horrela izan behar anaien artean. Hauen artean handien izan nahi duena izan bedi guztion zerbitzari eta morroi; eta beraien artean nagusiena egin bedi txiki-enaren pareko. Eta anaia batek ez biezaio beste bati gaizki egin edo esan; baizik eta, espirituzko karitateaz, elkar zerbitza eta elkarri obedi biezaiote borondatez. Horixe da, izan ere, Jesu Kristo gure Jaunaren obediencia egiazko eta santua. Eta ez bedi inor priore deitu, baizik eta den-denak anaia txiki dei bitez. Eta oinak garbi biezazkiote elkarri».

Frantziskok begi aurrean daukan eredua Jesu Kristo da, Jauna, ikasleei oinak garbitzen dizkiena, eta hori da etengabe aipatzen duen etsenplua, anaiak senide-harremanak izatera aholkatzen dituenan. Ez du aholkatzen botere/agintea ondo erabil dezatela. Hauek dira bere hitz soil eta argiak: “anaiek ez bezate izan botererik eta aginterik, eta are gutxiago beren artean”.

Otoitza

Oi Kristo Jauna, emadazu bihotz noblea
zu hobeto zerbitzatzeko.
Bihotz indartsua
ideal altuak irrikatzeko
eta ez aukera kaskarrak.
Bihotz eskuzabala lanean,
horretan inposizio bat ez baina
ematen didazun misio bat ikus dezadan.
Bihotz handia sufrimenean,
soldadu bulartsu izanez
neure gurutzearen aurrean
eta zirenetar sentibera besteen gurutzearentzat.
Bihotz handia munduarentzat,

adikor izanik haren ahuleziekin,
baina haren joka-arau eta sedukzioek
zauritua izan gabe.
Bihotz handia gizakiekin,
leial eta arretatsu guztiekin,
baina bereziki lagunkoi eta emana
xume eta apalei.
Bihotz ez kiribildua inoiz neuregana,
beti zuregan sostengu duena,
pozik zu eta neure senideak zerbitzatzeko,
oi ene Jauna,
nire bizitzako egun guztietan. Amen.

Gutuneko azken hitzak

“Boterea lehergai bat da: kontuz erabil ezean lehertu egiten da.” (Enrique Tierno Galván)

2016ko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate urtarrileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 2, 16-21	8 Mk 6,34-44	15 Mk 2, 1-12	22 Mk 3, 13-19	29 Mk 4, 26-34
2 Jn 1, 19-28	9 Mk 6, 45-52	16 Mk 2, 13-17	23 Mk 3, 20-21	30 Mk 4, 35-41
3.Jn 1, 1-5.9-14	10 Lk 3, 15-16.21-22	17 Jn 2,1-11	24 Lk 1,1-4;4,14-21	31 Lk 4, 21-30
4 Jn 1, 35-42	11 Mk 1, 14-20	18 Mk 2, 18-22	25 Mk 16, 15-18	
5 Jn 1, 43-51	12 Mk 1, 21-28	19 Mk 2, 23-28	26 Mk 3, 31-35	
6 Mt 2,1-12	13 Mk 1, 29-39	20 Mk 3, 1-6	27 Mk 4, 1-20	
7 Mt 4,12-17.23-25	14 Mk 1, 40-45	21 Mk 3, 7-12	28 Mk 4, 21-25	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org




Asis Sarea

646 21 48 96

Urtarrileko otoitza 28an izango da